



5/2024 LEHENDAKARI EBAZPENA

Leitza, 2024ko otsailaren 29an

GAIA: ALDI BATERAKO ENPLEGUA EGONKORTU ETA FINKATZEKO EZOHICO PROZESUARI DAGOKION LANPOSTUAK MEREZIMENDU-LEHIAKETA BIDEZ BETETZEKO DEIALDIA. BETEBEHARRAK FROGATZEA.

MAIDER AMANTEGI URDALLETA, Leitza, Areso, Goizueta eta Aranoko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko lehendakariak, Toki- araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 21.artikuluak onartzen dion gaitasunean oinarritua, honakoa

ADIERAZTEN DU:

LEHENENGO.- 2024ko otsailaren 29an LAGA Mankomunitateko web orrialdean Mankomunitateko lanpostu hutsak merezimendu lehiaketa bidez betetzeko prozesuari dagokion merezimenduen behin betiko emaitza argitaratu da.

BIGARRENA.- Deialdiaren 9.1 oinarria kontuan hartuta, organo eskudunak 10 egun balioduneko epea irekiko du lanpostua eskuratu duten izangaiek (zenbat lanpostu huts eskaini diren, beste hainbeste izangai) betebeharrak frogatzeko agiriak aurkez ditzaten.

Hori guztia aintzat hartuta,

EBAZTEN DU:

LEHENA.- I. eranskinean agertzen diren pertsoneri, 9.1 oinarrian ezarritakoaren arabera, 10 egun balioduneko epea ematea betebeharrak frogatzeko agiriak aurkezteko. Agiriak fisikoki Mankomunitatearen egoitzan (Elbarren 1, 31880 Leitza, Nafarroa) edo telematikoki Mankomunitatearen egoitza elektronikoki bidez aurkeztuko beharko dira.

BIGARRENA.- Ebazpen hau webgunean argitaratzeko agindua ematea.

Leitza, 2024ko otsailaren 29an

Horren guztiaren berri izan dezazun eta dagozkion ondorioak sor ditzan jakinarazten dizut; honen aurka errekurtsio hauetakoren bat jarri ahalko da:

- 1.- Aukeran, eta beti ere hilabeteko epean, Berraztertzeko errekurtsioa, egintzaren organo egileari zuzendua, edo Gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua.
- 2.- Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Sailari zuzendua, bi hilabeteko epean, erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita, aurreikusitako kasuetan salbu.



